

## **ULIAKO ITSASLABARREK MEREZI DUTEN TRATAERARI BURUZKO**

### **KONTROL MOZIOA**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzaren 14ko Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Uliako itsaslabarrak Europar Batasunak babestutako eremu naturalak dira (Natura 2000ko parte). Kontserbazio Bereziko Eremu honen berri egiteko lan komunikatiboa prestatu eta dagokion kartel egokitua bertan kokatu zen 2015eko ekainean. Hortxe egon da hiru urtez udaberrian desagertu arte. Bertan ematen zen informazioa garrantzizkoa da herritarrek gunearen ezaugarriak ezagututa (landare eta animalia motak, zonaldearen ezaugarri berezituak, eta abar) beren balioaz ohartzeko; ezagutzak zaintza eta errespetua dakartzalakoan.

Haatik, desagerpenak Udal Gobernuak bertan jartzeko pasarelaren egitasmoa sustatzen hasi den unearekin bat egin duenez, biek zerikusia ote zezaketen zurrumurruak zabaldu ziren. Gainera, Udal Gobernuak "NU.02.ULIA" Naturgunearen Babesa eta Kontserbaziorako Plan Berezia gelditu zuen Donostiako parteari dagokionez, pasaitarren erabakien zain.

Gaiaz galdetuta zinegotzi ordezkariak esan zuen berehala jartzeko asmoa zegoela eta kartela desagertu izanak ez zuela beste ezerekin zerikusirik, nork kendu zuen ere ez zekitela. Jarriko zuten noizbait eta berriz lurrean botata zegoen udarako, eta Udal Gobernuak bere lekuan modu txukunean jartzeko ardura hartu ez zuenez, herritarrek hartu eta zeuzkaten medioak erabilia bertan jarri zuten, gutxienez, bertara gerturatzeko direnek ikusi ahal izateko moduan. Hortxe geratu da erorita (edo kenduta?) eta hala ere jendeak irakurtzen du, jakin-mina pertsonen barru-barruko gose aseezina delako.

**Uliako kartelarekin** egindako kudeaketa kaxkarra ezin da ulertu bigarren intentzioren bat dagoelako ez bada. Uliako itsaslabarrak Europar Batasunak babestutako eremu naturalak direla azaltzeko, zer landare eta animalia motak dauden, zonaldearen ezaugarri berezituak zeintzuk diren, babesaren zergatia, finean, azaltzea guztiz garrantzizkoa da herritarrek erabakiaren mamia ezagutu dezaten, ezagutzatik errespetua baitator. Ingurumena zaintzeko oinarritzko politikaren parte

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

- Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio lehenbailehen Uliako itsaslabarrei dagokien informazio guztia, Europar Batasunak babestutako eremu naturalak direla eta, azaltzen duen kartela jartzeko, halako espazioari dagokion duintasunez eta iraunkortasuna ziurtatzeko behar diren medio egokiak erabiliz.

Donostian, 2018ko irailaren 21ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia